

## BAKARRIZKETEN LEIHAKETA

### HELBURUAK

- Partaideen sormena suspertzea, gai nagusia: pertsona batek besteren kontura edo norbere kontura lan merkatuan sartzea erabakitzen duenean, izan ditzakeen gorabeherak.
- Enpresaren jarduera sektore batekin, sektore artistikoarekin, alegia, lankidetzan aritzea, sarritan, hazkuntza aukerak mugatuak baititu.
- Umoreaz baliaturik, jendeari, bereziki, enplegua bilatzen duten pertsoneri egiazko egoerak erakustea, testuinguru eta gorabeheren aurrean prestatu eta aurreratzeko.

### LEHIAKETAREN OINARRIAK

#### 1. Lehiaketaren xedea eta erakunde antolatzailea:

**DEMA** Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia **Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren** mendekoa da eta berak antolatzen du lehiaketa hau, umorez bakarrizketetan sormena eta antzezpena sustatzeko.

#### 2. Bakarrizketaren gaia

Bakarrizketaren gai nagusia pertsona batek, bai besteren kontura, baita norberaren kontura ere lan merkatuan sartzea erabakitzen duenean izan ditzakeen gorabeherak antzezte da: lan elkarrizketak, zailtasunak, errekerimenduak, merkatuaren eskakizunak.... Dena den, bakarrizketaren egileak hautatuko ditu azpimarratu nahi dituen alderdiak.

#### 3. Sariaren zenbatekoa:

Lehenengo saria **3.000 euro** dira. Nolanahi ere, **250 euroko** saria emango zaio azken ekitaldirako hautatu den finalista bakoitzari, baina ezingo da lehenengo sariaren zenbatekoarekin metatu. Sariari indarreko zerga araudia<sup>1</sup> aplikatuko zaie eta zenbatekoak garbiak dira, dagokien atxikipena egin ondoren.

#### 4. Baldintzak:

- 18 urtetik gorakoek parte har dezakete, arte eszenikoetan profesionalak edo zaletuak badira.
- Honako bideo formatuak onartuko dira: MOV, MPEG4, MP4, AVI, WMV, MPEGPS, FLV, 3GPP eta WebM.
- Bakarrizketa idazten duen pertsonak eta interpretatzen duenak ez dute nahitaez berdinak izan behar. Halakoetan, biak identifikatuko dira eta irabazleak izanez gero, saria partekatuko dute.
- Antzezle bakoitzak bakarrizketa bana aurkez dezake.

#### 5. Aurkezteko epea:

---

<sup>1</sup> Sari hau PFEZren zerga egitatea da eta ez dago salbuetsia, errentan kontuan hartu beharrekoa izateaz gain, 13/2013 Foru Arauak, abenduaren 5ekoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, xedatutakoan oinarrituta. Modu osagarrian aipatu, Barakaldoko DEMA Enpresa Garapena Enpresa Garapenari Laguntzeko Elkarteak Foru Ogasunean sartuko duela atxikipena, apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuak 81., 82. eta 98. artikuluetan xedatutakoaren babesean.



Testuak eta bideoak bidaltzeko epea **2018ko azaroaren 22an**, 18:00etan, amaituko da.

## 6. Irizpideak balioztatzeke:

Besteak beste, hurrengo irizpideak balioetsiko dira:

- Aurkeztutako bakarrizketa lehiaketaren xede den gaiari moldatzen al zaion.
- Bakarrizketaren atsegintasuna, umorea eta originaltasuna.
- Gidoiaren egitura eta hizkuntzaren aberastasuna.
- Antzezteari dagokionez, bakarrizketaren freskotasuna, komikotasuna eta ikusgarritasuna balioetsiko dira.

## 7. Epaimahaia:

Epaimahaia kultura, ikuskizun eta Demako kideek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira eta saria hutsik utz daiteke epaimahaiaren ustez hautagaien proposamenek kalitate nahikoa ez badute.

## 8. LEHIAKETAREN FASEAK

- 1) **Bideoak hartzeko fasea: azaroaren 5etik 22ra** partaideek bakarrizketak testuan (PDF formatua) bidaliko dituzte eta gutxienez 3 (gehienez 6) minutuko antzezlanaren lagina erantsiko diote bideo euskarrian. Honako helbidera igorriko dira: [enplegua@prestik.eus](mailto:enplegua@prestik.eus) Bestela, DEMAren egoitzan, Barakaldon (Fanderia kalea, 2), aurkez daitezke. Harremanetarako datuak (izena eta abizenak: izen artistikoa, nahi izanez gero; NANA; helbidea; posta elektronikoa helbidea eta telefonoa) eta xedea adieraziko dira: Enplegua eta Ekintzaitetza-Bakarrizketen lehiaketa.
- 2) **Finalistak hautatzeko fasea: azaroaren 22tik 26ra**. Epaimahaiak jasotako testu eta bideoetan oinarrituta, aurretiaz 4 bakarrizketen egile hautatutako ditu eta azken fasera pasako dira. **Azaroaren 26an** hautatuei azken fasera pasako direla jakinaraziko zaie.
- 3) **Azken fasea: azken faserako 4 bakarrizketa egile** hautatuko dira eta **epaimahaiaren** eskutik balioztapenik onena lortu dutenak izango dira. Hautatutako finalista orok aurkeztutako bakarrizketa garatu beharko du eta sei minutuko iraupenera irits daiteke azken ekitaldian antzezteko. Hori PRESTIK enplegu azokan egingo da abenduaren 13an.

## 9. Saria emateko prozedura:

- Saria epaimahaiak azken fasearen antzezpenean hobe balioztatzen duen bakarrizketari emango zaio eta, horretarako, oinarri hauen 6. puntuan zehaztutako irizpideei erreparatuko zaie.

## 10. Eskubideak gordetzea:

- Lehiaketan aurkeztutako testuak eta bideoak ez dira itzuliko.
- DEMAK lehiaketaren dinamika aldatzeko eskubidea gordetzen du. Horrez gain, aurrez ikusitako datak alda ditzake, horren garapen onaren onurarako bada. Edozein aldaketa modu egokian iragarriko da.
- DEMAK bideo eta emanaldi guztiak grabatu eta emateko eskubidea gordetzen du. Gainera, gero urtebetez aurkeztutako bakarrizketekin bideoak komunikabideetan hedatzeko aukera izango du, egile/antzerkigileek ordaina jasotzeko eskubiderik gabe.
- Lehiaketa honetan parte hartzen bada, oinarri guztiak oso-osorik onartuko dira.

## 11. Datuak babesteko indarreko araudiarekin bat, honakoa jakinarazten dizugu:



Arduraduna	Barakaldoko DEMA ENPRESA GARAPENA enpresa garapenean laguntzeko elkarte
Helburua eta legitimazioa	Lehiaketa bera kudeatzea eta, ondoren, Dema elkartearen xedearen eremuan programa, jarduera eta ekitaldiei buruzko informazioa bidaltzea.
Hartzaileak	Datuak Bizkaiko Foru Aldundiari, arloan aginpidea duten beste herri administrazio batzuei eta erakunde pribatuei jakinaraz dakizkieke, programan lankidetzan badihardute.
Eskubideak	Zure datu pertsonalak lor ditzakezu, datu zehaztugabeak zuzendu edo ezabatzea eskatzeaz gain, honakoaren aurrean jada beharrezkoak ez direnean: Dema. Barakaldoko Fanderia kalea, 2 – 48901 – Bizkaia. Nortasuna egiaztatu beharko da.

### EPAIMAHAIAREN KONPOSIZIOA

- Felipe Loza, aktorea, idazlea, PABELLÓN 6en zuzendaria.
- Ramón Barea, Bilbo, aktorea, dramaturgoa, antzerki zuzendaria eta zinema errealizadorea.
- Maribel Salas, aktorea
- Gloria Mugica, DEMAko zuzendari-kudeatzailea

### EGUTEGIA

TESTUAK ETA BIDEOAK AURKEZTEKO EPEA	FINALISTAK HAUTATZEKO FASEA	AZKEN FASEA
<b>Azaroak 5-22</b> Testuak eta bideoak aurkeztea; gutxienez 3 minutu gehienez 6	<b>Azaroak 22-26</b> Epaimahaiak jasotako testu eta bideoetan oinarrituta, aurretiaz 4 bakarrizketen egile hautatutako ditu eta azken fasera pasako dira.	<b>Abenduak 13</b> <b>4 bakarrizketa egilek</b> zuzenean bakarrizketak antzetzuko dituzte PRESTIK azokan.
	<b>Azaroak 26</b> <b>4 finalistak</b> jakinaraztea: bakarrizketa berria sortuko dute edo aurrekoa garatu gehienez 6 minutuz.	<b>Abenduak 13</b> <b>Prestiken sariak ematea</b>